

ALCATEL
ONE TOUCH
556

Telefonoaren
erabilera-gida.



Sarrera.....

Alcatel-ek eskerrak ematen dizkizu telefono hau erosteagatik.

Zure kamera

Atera argazki-segidak. Entzun soinudun bideoklipak zure telefono mugikorretik. Zure multimedia bilduman gorde eta pantaila-babesa pertsonalizatzeko erabil ditzakezu. Bideo bat kontaktu bati lotu ere egin diezaiokezu; hala, pertsona horren dei bat jasotzen duzunean bideo hori azalduko da pantailan. Egin zure unerik onenen argazkiak kamerarekin, beste pertsona batzuekin partekatzeko. Hau ere egin dezakezu: zooma erabili, argazkiak ateratzen dituzun bitartean soinua grabatu edo zure argazkiak alaitu marko eta zigilu txiki dibertigarriekin. Benetan erraza da!

Adierazi koloreekin MMS bidez

MMS teknologia berriari esker, bideoak, koloretako irudiak eta soinua bidali ditzakezu mezuetan. Zure meziek eguneko zure umorea isla dezakete, integratuta dagoen edo deskargatzeko prest dagoen multimedia edukiari esker.

Zurea bakarrik

Eman iezaiozu ukitu pertsonala zure telefonoari. Aukeratu kolore bat edo itxura bat pantailaren hondoen sortatik, edo aukeratu multimedia eduki aberatseko doinuetako bat, pantaila-hondoetako bat edo bideoklip bat.

Zure jolaslaguna

Deskargatzeko joko eta aplikazio mordo bat daude. Dibertsio handiko uneak datozkizu. Presta zaitetz!

Aurkibidea.....	0
Sarrera.....	1
Erabiltzeko oharrak	5
Informazio orokorra	8
1. Zure telefonoa	9
1.1 Teklak.....	11
1.2 Hasierako pantailako ikonoak.....	12
2. Martxan jartzea	14
2.1 Erabiltzeko moduan jarri.....	14
2.2 Telefonoa piztea	18
2.3 Telefonoa itzaltzea.....	18
3. Deiak.....	19
3.1 Deitzeko	19
3.2 Ahots-postontzira deitzea	20
3.3 Deiak jasotzea	20
3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean	21
3.5 Konferentzia.....	22
3.6 2. linea ALS	23
4. Deien erregistroak.....	24
4.1 Deien memoria	24
4.2 Nire zenbakiak	25
4.3 Nire helbide elektronikoa.....	25
4.4 Faktura	25
4.5 Deien doikuntzak.....	27
5. Menua	30
6. Direktorioa.....	32
6.1 Direktorioa kontsultatzea.....	32
6.2 Erregistroak sortzea.....	33
6.3 Erabilgarri dauden aukerak.....	34
6.4 Direktorio berriak sortzea.....	35
6.5 Ahozko markaketa	35

6.6	Txirrin bat direktorio batekin lotzea.....	36
6.7	Irudi, animazio edo bideo bat erregistro batekin lotzea.....	36
6.8	Konfidentzialtasuna	36
7.	Mezuak	37
7.1	Mezuak jasotzea eta irakurtzea.....	38
7.2	Mezuak idatzi eta bidaltzea	41
7.3	Testua sartzeko sistema prediktiboa.....	45
7.4	Parametroak.....	47
7.5	Mezuak ezabatzea	49
8.	Pertsonalizatzea	50
8.1	Soinuak	50
8.2	Pantaila.....	51
8.3	Erlojua.....	54
8.4	Teklak pertsonalizatzea	55
8.5	Beste doikuntza batzuk.....	56
9.	Nire lasterbideak.....	60
10.	Tresnak	61
10.1	Agenda.....	61
10.2	Alarmak	64
10.3	Bihurgailua.....	65
10.4	Kalkulagailua	65
10.5	Memoria	66
10.6	Grabazioa.....	66
10.7	Infragorriak (IrDA).....	67
10.8	Alarmen zerrenda	67
10.9	Konpositorea.....	68
10.10	Ahots-komandoa	69
11.	Aholkuak & Trikimailuak	70
12.	WAP	71
12.1	WAP menura sartzea	71
12.2	Sarbidea programatzea.....	71
12.3	Zuzeneko sarbidea / Profil-sarbidea.....	73
12.4	GPRS funtzioa	73

12.5	WAP nabigatzailearen aukerak.....	74
13.	Multimedia bilduma.....	75
13.1	Album menua.....	75
13.2	Nire irudiak.....	75
13.3	Nire bideoak.....	77
13.4	Nire soinuk.....	77
13.5	Irudien, soinuen eta bideoen kudeaketa.....	78
13.6	Bideo, argazki, soinu berriak deskargatzea.....	79
13.7	Formatuak eta bateragarritasuna.....	79
13.8	Jokoak & Aplikazioak.....	79
13.9	Memoria.....	79
14.	Kamera.....	80
14.1	Argazkia egitea.....	80
14.2	Argazki-segidak.....	81
14.3	Irudia eta soinua hartzea.....	81
14.4	Doikuntzak.....	82
14.5	Irudia hartu ondoren dauden aukerak.....	87
14.6	Irudiak aldatzea.....	87
14.7	Argazkiak egiteko funtziorako edo bildumarako zuzeneko sarbidea MMSak prestatzeko pantailatik.....	88
15.	Jokoak & Aplikazioak.....	89
15.1	Aplikazio bat martxan jartzea.....	89
15.2	Erabilgarri dauden aukerak.....	90
15.3	Aplikazio bat deskargatzea.....	90
15.4	Java™ Push.....	91
15.5	Doikuntzak.....	91
16.	Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari.....	93
16.1	Alcatel-en “My One Touch” zerbitzuak.....	93
16.2	Alcatel-en PCrako programen paketea.....	93
17.	Karaktereen eta sinboloen taula.....	94
18.	Bermea.....	95
19.	Osagarriak.....	97
20.	Arazoak eta irtenbideak.....	99

Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN:**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea debekatzen zaio gidariari.

Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipoen elektronikoen interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airebaganen, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK:**

Itzali telefonoa hegazkinean.

Arau hau betetzen ez baduzu, baliteke prozesu judizialei aurre egin behar izatea.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipoen batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake. Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, baizik beste aldekoan. Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan. Haurrek ez dezatela telefonoa erabili zaintzarik gabe.

Ez saiatu telefonoa zuk zeuk irekitzen edo konpontzen.

Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen aplikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatel-en bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili behar dituzu (ikus 91. orrialdea). Beste kasuetan, Alcatel-ek ez du ardurarik hartzen bere gain. Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna, euria, likidoak sartzeko arriskua, hautsa, itsas haizea, etab.). Fabrikatzaileak -10°C eta $+55^{\circ}\text{C}$ bitarteko tenperatura gomendatzen du. 55°C -tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

• **BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA:**

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardurara da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefona behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

• **BATERIA:**

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefona itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan: ez ireki bateria (substanzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago), ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik, ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan. Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako, eta ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo Alcatel-ek aholkatu gabekorik.

• **KARGAGAILUAK:**

Saretik elikatzen diren kargagailuak 0-40 °C bitartean erabiltzeko diseinatu daude. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatu dago.

• **UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK:**

Telefono mugikorraren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) zuzentarauarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorraren erabiltzaileena– eskakizun edo zuzentzarau horien funtsezko betebeharra da.

IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK.

Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP) (1) eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) (2) gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatu diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Muga horiek aditu independenteez ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz. Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

Telefono mugikorren arauak "SAR" (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa) izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste. Probak potentzia-mailarik altuena igorri egin dira, maiztasun-banda guztietan. SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probetan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatuta dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehienezko balioa, belarriaren ondorako eta arauaren arabera, 0,40 W/kg da One Touch 556aren kasuan, eta 0,43 W/kg One Touch 557aren kasuan. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo erabiltzeko modu batetik bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

Zure mugikorrak antena integratua du. Komunikazioko funtzionamendua optimizatzeko, ez ukitu edo hondatu (ikus 17. orrialdea).

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, "egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrak erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera (edo esku libreko kit eramangarria) erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago" (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.


- (1) ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hego Amerika, Iparraldeko eta Hegoaldeko Afrika, Asia-Pazifikoa (Taiwan eta Korea izan ezik), Australia.
- (2) Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Mendebaldeko Europa, Ekialdeko Europa, Israel.

Informazio orokorra.....

- **Interneteko helbidea:** www.alcatel.es – **Wap helbidea:** wap.alcatel.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "Alcatel-en zerbitzuak" liburuxka (deia herriko dei gisa fakturatuko da, zure herrialdean indarrean dauden tarifen arabera).

An electronic version of this user guide is available in English and other languages according to availability on our Alcatel Server: www.alcatel.com

Zure telefonoa irrati-uhinen igoera eta hartzailea da, eta GSM sareetan, 900 MHz, 1.800 MHz eta 1.900 MHz bandetan, funtzionatzen du.


Zure telefonoak 1999/5/EE (R&TTE) arretataraua betetzen duela eta osagarriek indarrean dauden Europako Erkidego arretatarauak betetzen dituztela ziurtatzen du  markak. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioaren testu osoa helbide honetan irakur dezakezu: www.alcatel.es.

Lapurretaren aurkako babesa

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (♯*, ♯, Ⓚ, Ⓜ, ♯) teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Zure telefonoa

One Touch 556



(1) Operadorearen arabera.

One Touch 557



(1) Operadorearen arabera.

I.1 Teklak



Nabigatzailea:

Aukera bat berretsi (erdian sakatuta)



Ezabatu (labur sakatuta)

Aurreko pantailara itzuli (labur sakatuta)

Hasierako pantailara itzuli (luze sakatuta)



Hartu

Deia egin

Deien memoria kontsultatu (BIS) (labur sakatuta)

Ahozko markaketa erabili (luze sakatuta)



Telefonoa piztu/itzali (luze sakatuta)

Eseki

Pantaila inaktibora itzuli



Operadorearen tekla /Tekla pertsonala/
Kamera ⁽¹⁾



Ezkerreko funtzio-tekla



Eskuineko funtzio-tekla



Ahots-postontzia kontsultatu (luze sakatuta)



Hasierako pantailatik:

Teklatua blokeatu/desblokeatu (luze sakatu).

Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: maiuskulak, minuskulak, zifrak

- Luze sakatuta: modu arruntetik modu prediktibora aldatu



Hasierako pantailatik:

- Labur sakatuta: markatu #

- Luze sakatuta: bibragailua aktibatu/desaktibatu

Editatzeko moduan:

Sinboloen taulara joan (labur sakatuta)

Alboetako teklak:

- Hasierako pantailatik kamera funtziora joan

- Argazki bat atera (beherantz edo gorantz labur sakatuta)

- Argazki-segida bat atera (gorantz luze sakatuta)

- Argazkia eta soinua hartu (beherantz luze sakatuta)


- Bolumena doitu hizketan ari zaren bitartean


- Menuan batera eta bestera mugitu

⁽¹⁾ Operadorearen arabera.


1.2 Hasierako pantailako ikonoak ⁽¹⁾


 **Bateriaren karga-maila**

 **Bibragailua modua:** zure telefonoak dar-dar egiten du baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, alarmen kasuan izan ezik (ikus 51. orrialdea).

 **Isilik modua:** zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik (ikus 51. orrialdea).


 **Irakurri gabeko mezua**

 **Mezu laburren zerrenda beteta (SMS):** zure telefonoak ezin du SMS mezu gehiago jaso. Mezuen zerrendara joan behar duzu, gutxienez mezu bat ezabatzeko (ikus 49. orrialdea).

 Ahots-mezua entzun gabe.

 Erantzun gabeko deiak.

 WAP mezuen jakinarazpena.

 **Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** deiak desbideratu egingo dira (ikus 27. orrialdea).








 **Minutu-kontagailua edo iratzargailua programatuta** (ikus 64. orrialdea).

 **Estaldura-adierazlea.**

 **Lehentasunezko tarifa-eremuak ⁽²⁾.**

⁽¹⁾ Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak lagungarriak dira.

⁽²⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

-  **Teklatua blokeatuta.**
-  **Roaming-a, ordaintzen duzun herrialdean.**
-  **Infragorriak:** infragorrien lotura aktibatuta.
-  **2. linea ⁽¹⁾:** aukeratutako linea zein den adierazten du.
-  GPRS ingurunea aktibatuta
-  MMSa jasotzen ari da.
-  MMSa bidaltzen ari da.


⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

2 Martxan jartzea.....

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea

SIM txartela sartzea eta ateratzea ⁽¹⁾



Telefonoa erabili ahal izateko, SIM txartela sartu behar duzu.



Jarri SIM txartela txipa berantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela.


(1) Egiaztatu zure operadorearekin zure SIM txartela 3 voltetkoa dela. 5 voltetako txartel zaharrak ezin dira erabili. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Bateria instalatzea




Sartu eta bultzatu bateria, eta, ondoren, itxi telefonoaren tapa.


Bateria kentzea



Ireki tapa irudian erakusten den bezala, askatu bateria eta atera.




Bateria kargatzea



One Touch 556

Konektatu kargagailua




One Touch 557

- Seinale akustiko labur batek adierazten du kargatzen hasi dela.
- Animazioa zertxobait atzera daiteke edo txistu-hotsa atera dezake bateria oso deskargatuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Itxaron 2 minutuz bateriaren ikonoak karga-maila zehatza adierazi arte.
- Bateria instalatuta ez badago, kargagailua konektatu aurretik instalatu behar duzu.
- Korrante-hartuneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikoak ez erabiltzea gomendatzen da).



Bateria erabat betetzen denean animazioa gelditu egiten da. Alcatel-en kargagailuak bakarrik erabili.

Erabiltzeko oharrak




Ez jarri eskua telefono mugikorraren goiko aldean.


Zure mugikorrak antena integratua du. Komunikazioan funtzionamendua optimizatzeko, ez ukitu edo hondatu.

Seinalea hobetzeko eta funtzionamenduko kalitate egokiena izateko, ez heldu telefono mugikorrari goiko aldetik.

Zinta aldatzea




Altxatu zinta



Ezarri zinta

2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte; behar izanez gero, tekleatu PIN kodea eta berretsi **OK** teklarekin. Hasierako pantaila bistaratuko da.



PIN kodea zein den ez badakizu edo ahaztu bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin. Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil; eta txartela erabiltzen ez duzunean, gorde leku seguruan.

Sarearen bidez banatutako mezuak bistaratzen badira, erabili **OK** tekla mezu guztiak bistartzeko edo sakatu **C** tekla hasierako pantailara itzultzeko.

Telefonoa sarea bilatzen ari denean <<< - >>> sinboloa agertzen da (??? - ??? sinboloa agertzen da sareak SIM txartela onartzen ez duenean; kasu horretan, jarri harremanetan operadorearekin).



Pizteko/itzaltzeko pantailatik, “**Video**” funtzioaren ezaugarriak ikus ditzakezu: hautatu ezkerreko ikonoa nabigazio-teklarekin ◀▶. Bideoklip-zerrendak ikusiko dituzu, baita SIM txartela sartu gabe ere.



2.3 Telefonoa itzaltzea


Hasierako pantailan, sakatu  tekla (luze sakatu).

3 Deiak.....


3.1 Deiak egitea

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Esekitzeko, sakatu  tekla.

 Akatsen bat eginez gero, erabili  tekla zifrak ezabatzeko.




“+” edo “P” (etenaldia) idazteko,  tekla luze sakatu (karaktere hauek agertuko dira: 0, +, P, •).

Larrialdiko deia egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu **112** eta sakatu  (edo zure operadoreak emandako beste edozein zenbaki), larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik gabe, PIN kodea sartu gabe eta teklaturia desblokeatu gabe ere.

Dei bat egitea aurrezenbaki bat erabilita



“**Prefijo**” batera sartzeko, luze sakatu  tekla + sinboloa bistaratu arte. Aurrezenbakietara sartzeko, erabili  tekla.

- Nazioarteko dei bat egiteko, hautatu  ikonoa, sartu herrialdearen edo zonaren adierazlea, osatu solaskidearen telefono-zenbakia eta bidali deia.
- Erabili nahi duzun aurrezenbakia zein den badakizu, joan  ikonora eta sartu zuzenean aurrezenbakia eta solaskidearen zenbakia.
- Enpresa batzuetan, zenbakiak digitu berberekin hasten dira. “**Prefijo**” funtzioari esker (), zati komuna memorizatu eta aldatzen dena bakarrik idatz dezakezu. Zuk zeuk sortu behar dituzu aurrezenbakiak.

Automatikoki berriz deitzea

Funtzio hau aktibatuta badago eta sareak inplementatu badu (ikus 29. orrialdea), automatikoki dei diezaiokezu berriro solaskideari, harekin hitz egitea lortu arte.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu honek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsulta dezakezu postontzi hori. Ahots-postontzira sartzeko, luze sakatu  tekla eta egin deia  tekla sakatuta.



Zure postontzira sartzeko zenbakirik ez baduzu, sartu operadoreak adierazitako zenbakia. Zenbaki hori aldatzeko, erabili **"Mis números"** aukera (ikus 25. orrialdea).



Ahots-postontzia atzerrian erabiltzeko, jarri harremanetan operadorearekin bidaia egin aurretik.

3.3 Deiak jasotzea

Dei bat jasotzen duzunean, sakatu  tekla, hitz egin eta eseki  tekla erabilita.


Dei bat jasotzean, zure telefonoaren txirrina geroz eta ozenago entzuten da.  ikonoa bistaratzen bada, bibragailua aktibatuta dago: txirrinak ez du soinurik aterako.  ikonoa bistaratzen bada, bibragailua eta txirrina ez daude aktibatuta.

(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Deia egin duenaren zenbakia sareak transmititzen badu bistaratzen da (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

Txirrina moztea


Sakatu **C** tekla behin telefonoak jotzen duenean. Sakatu  tekla deiarri erantzuteko, edo hautatu “**Opcion.**”.


Deia ez onartzea

Sakatu  tekla behin edo **C** tekla bi aldiz, edo hautatu “**Opcion.**”.


3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean

Erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure direktorioa, agenda, mezu laburrak eta abar erabili ditzakezu, komunikazioa eten gabe,  tekla erabilita.

 Zain

 Uneko deia

 Esku-librekoa


KONTUZ: urrutiratu telefonoa belarritik “**Manos libres**” aktibatuta duzunean; izan ere, bolumena anplifikatuta egonda, kalteak eragin ditzake entzumenean.

 Direktorioa

 Mezuak

 Agenda


 Zerbitzuak ⁽¹⁾

 Grabazioa (grabatu uneko deia)

 Oharrak ikusi


⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Bolumena aldatzea

Dei batean, bolumena doi dezakezu  nabigatzailea edo alboko teklak erabilia.

Dei berri bat jasotzea

- **Deia zain** ⁽¹⁾




Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen baduzu, seinale akustiko baten bidez ohartaraziko dizu telefonoak. Deia onar dezakezu,  tekla sakatuta.




Uneko deia zain geratuko da automatikoki eta solaskide batetik bestera aldatu ahal izango duzu  eta  tekla erabilia.

- **Bigarren deia**

Komunikazio batean, bigarren solaskide bati dei diezaiokezu zuzenean zenbakia markatuta.

3.5 Konferentzia ⁽¹⁾

Zure telefonoak une berean zenbait pertsonarekin hitz egiteko aukera ematen du (gehienez 5 solaskide). Dei bikoitzean zaudenean: sakatu , aukeratu “**Conferencia**”, eta, ondoren, berretsi  teklarekin. Hirugarren dei bat jasotzen baduzu, hartu  tekla sakatuta eta hitz egin solaskide berriarekin.

Hirugarren solaskidea konferentzian sartzeko, sakatu  tekla, aukeratu “**Añadir conf.**” eta berretsi  sakatuta. Uneko komunikazioa mozteko, sakatu  .

Konferentzia amaitzeko, sakatu  tekla eta aukeratu “**Acabar confer.**”.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

3.6 2. linea (ALS) ⁽¹⁾

Zure SIM txartelak bi telefono-zenbaki izan ditzake. “**Registro Ilamad.**” aukeran, aukeratu “**Línea 2**” eta hautatu lehenetsitako linea; zure dei guztiak telefono-zenbaki horren bidez egingo dira. Jasotako deiak bi lineetatik jaso ahal izango dira.




Lehenetsitako linean programatutako zerbitzuek ez dute eraginik beste linearako hautatutako zerbitzuetan.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4 Deien erregistroak.....

4.1 Deien memoria

Deien memorian sartzeko, sakatu  tekla hasierako pantailan. Lehenengo, nahi duzun ikonoa aukeratu behar duzu:



Irteerakoak (Bis)



Erantzun gabekoak



Erantzundako deiak



Hartzailearen izenaren ezkerreko aldean bistaratutako ikonoek adierazten dute direktorioan gordetako telefono-zenbakia zein motatakoa den (etxea, bulegoa, mugikorra).

Erabilgarri dauden aukerak

Zenbaki bat memorian sartuta baduzu, sakatu eskuineko funtzio-tekla aukera hauek ikusteko:

Consultar

- Kotsultatu deiaren xehetasunak (zenbakia, data, ordua, etab.).

Borrar Núm.

- Ezabatu aukeratutako zenbakia.

Escribir mens.

- Bidali SMS edo MMS bat hautatutako zenbakira.

Vaciar lista

- Ezabatu zerrenda osoa.

Guardar núm.

- Gorde aukeratutako zenbakia direktorioetako batean.

4.2 Nire zenbakiak

Nire zenbakia

Sartu zure telefono-zenbakia (normalean, SIM txartelean agertzen da) eta berretsi **OK** sakatuta.

Ahots-postontzia

Sartu edo aldatu ahots-postontzira sartzeko zenbakia.

4.3 Nire helbide elektronikoa

Idatzi zure helbide elektronikoa irudiak, bideoklipak, soinuak... bidali ahal izateko MMS bidez zure PCra.

MMS at idazten ari zarenean ere sar dezakezu helbidea, aukera egokietara joanda.

4.4 Faktura

Importe ⁽¹⁾	Fakturatutako deien kostuaren kudeaketa.
Coste total	Dei guztien kostua.
Saldo disponible ⁽¹⁾	“ Crédito máximo ” zenbatekoarekiko erabilgarri dagoen kreditua.
Saldo máximo ⁽¹⁾	Baimendutako gehienezko kreditua; balio honen gaineratik, faktura daitezkeen dei guztiak galarazita daude (kreditua gehitu - OK sakatuta berretsi).

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Puesta a 0	Fakturatutako deien kostu osoa zeroan jartzea.
Unidad	Telefono-unitatearen kostua zuk aukeratutako monetan (aukeratu “¿Otra?” aukera beste moneta bat hautatzeko eta erabili ... tekla hamartar bat sartzeko).
Duración	Deien iraupena kudeatzea.
Duración total	Egindako deien iraupena guztira.
Duración dispon.	“ Fijar duración ” aukeran adierazitakoarekiko erabilgarri dagoen denbora (informazio gisa emana).
Fijar duración	Ordainketaren iraupena (iraupena sartu – berretsi ... tekla sakatuta).
Puesta a 0	Egindako dei guztien iraupen osoa zeroan jartzea (berehala edo aldizka).
Contador GPRS	Fakturatu beharreko datuak trukatzeko bolumenaren kudeaketa (kilobyteak).
Contador Total	Datu-trukearen bolumen osoa.
Punto Acceso	Sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
• Punto acc. 1-2	1 edo 2 sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
Total acumulado	1 edo 2 sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumena.
Último contador	1 edo 2 azken sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
Puesta a 0	1 edo 2 sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumenak zeroan jartzea.
• Otro	Beste sarbide-puntu batzuetako datu-trukearen bolumena.
Total acumulado	Sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumena.
Último contador	Azken sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.

Borrar Kontagailu guztiak zeroan jartzea.

Resumen ⁽¹⁾

Última llamada Azken deiaren kostua eta iraupena erakusten du.


Coste total Dei guztien kostua eta iraupena erakusten du.

Duración Bip Aktibatu /desaktibatu dei batean finkatutako maiztasunarekin bip-a emititzeko iraupena (sartu maiztasuna – berretsi **OK** sakatuta).

4.5 Deien doikuntzak

Desvío llamada ⁽¹⁾

Voz Deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzeko funtzioa aktibatzea/desaktibatzea (sartu zenbakia, berretsi **OK** sakatuta).Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- Todas Dei guztiak sistematikoki desbideratzea  ikonoa bistaritzen da.
- Condicional Zure linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez duzunean edo saretik kanpo zaudenean.
- Si Ocupado Linea okupatuta dagoenean bakarrik.
- No respuesta Deiari erantzuten ez diozunean bakarrik.
- Fuera de red Sarearen estalduratik kanpo zaudenean bakarrik.

Datuak Datuak jasotzeko deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzen dira automatikoki.

Faxa Faxe jasotzeko deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzen dira automatikoki.

Estado Telefonoan aktibatuta dauden desbideratzeen zerrenda.

Anular todo Aktibatutako desbideratze guztiak bertan behera geratzen dira.


⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Prohibidas

Llamadas salientes	Deiak egiten debekua aktibatzea/desaktibatzea. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:
• Excepto Dir.SIM	Zure direktorioan ez dauden zenbakietara ezin da deirik egin.
• Todas ⁽¹⁾	Edozein dei egitea debekatzen da.
• Internacional ⁽¹⁾	Nazioarteko deiak egitea debekatzen da.
• Exc. -> País	Ordainketa egiten den herrialderako ez beste herrialde guztietarako deiak debekatzen dira.
• Excepto FDN ⁽¹⁾	Funtzioa aktibatuta badago, ezin dira egin SIM txartelean gordetako “ FDN ” direktorioari ez dagozkion deiak.
Activar/ Desactivar	Aktibatu/desaktibatu “ FDN ” direktorioan gordetako zenbakietara deitzeko debekua.
Cambiar	“ Excepto FDN ” aukera aktibatuta badago, PIN2 kodea sartu ondoren, “ FDN ” direktorioa eguneratu ahal izango duzu (OK tekla sakatuta egunera dezakezu “ FDN ” direktorioa).
Entrantes	Aktibatu/desaktibatu deiak jasotzeko debekua. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:
• Excepto Dir.SIM	Zure direktorioan ez dauden zenbakietara ezin da deirik egin.
• Todas ⁽¹⁾	Sartzen diren dei guztiak debekatzen dira.
• Extranjero ⁽¹⁾	Atzerrian egonez gero, sarrerako dei guztiak debekatzen dira.
Estado	Telefonoan aktibatutako debekuen zerrenda.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Llamadas

- En espera** ⁽¹⁾ Aktibatu/desaktibatu seinale akustikoa bigarren deia jasotzean.
- Anonimato (CLIR)** ⁽¹⁾ Zure deiak anonimoak izan daitezen aktibatu/desaktibatu deia (zure zenbakia ez zaie transmitituko sare bidez solaskideei).
- Identidad (CLIP)** ⁽¹⁾ Aktibatu/desaktibatu pantailan zure solaskidearen zenbakia bistaratzeko aukera (edo izena, direktorioan badago).
- Descolgado** ⁽¹⁾ Hautatu esekitzeko modua: “**Tecla=**  ” o cualquier tecla.
- Rellam. auto. red.** ⁽¹⁾ Deitu eta okupatuta zegoen azken zenbakira automatikoki berriro deitzeko aukera ematen du.
- Rellamada auto.** ⁽²⁾
- Activar/Desactivar** Aktibatu/desaktibatu zure solaskideari automatikoki berriro deitzeko funtzioa, deiari erantzun ez badio.
- Ver Lista** Berriro deitzeko saiakerak huts egin du zenbaki horien kasuan (10 saiakeraren ondoren).
- Vaciar lista** Ezabatu zerrenda.

Línea 2 (ALS) ⁽¹⁾

Ikus 23. orrialdea

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Operadorearen eta herrialdearen araberako erabilgarritasuna.

5 Menua ⁽¹⁾

- **JUEGOS & APLI.**
- **ÁLBUMMULTIMEDIA**
 - Mis Imágenes
 - Mis Vídeos
 - Mis Sonidos
 - Juegos & Apli.
 - Memoria
- **HERRAMIENTAS**
 - Agenda
 - Alarmas
 - Calculadora
 - Conversor
 - Memoria
 - Compositor
 - Grabación
 - Comando Vocal
 - Infrarrojos
 - Lista de Alarmas
- **FOTO / VÍDEO**
 - Hacer una foto
 - Mis Imágenes
 - Mis Vídeos
 - Consejos&Trucos
- **DIRECTORIO**
- **MENSAJES**
 - Crear mensaje
 - Mensajes Recibidos
 - Mensajes enviados
 - Buzón Voz
 - SMS predefinidos
 - Parámetros
 - Memoria
 - Borrar
 - Consejos&Trucos

⁽¹⁾ Operadorearen arabera.



- **REGISTRO LLAMAD.**
 - Memoria llamadas
 - Mis Números
 - Mi e-mail
 - Factura
 - Ajustes llamada
- **PERSONALIZACIÓN**
 - Sonidos
 - Pantalla
 - Reloj
 - Teclas
 - Otros ajustes...
 - Consejos&Trucos
- **MIS ATAJOS**
- **SERVICIOS**
 - Servicios ⁽¹⁾
 - My one Touch
- **WAP**
 - Página de inicio
 - Favoritos
 - Perfil WAP
 - Introducir dirección
- **CONSEJOS&TRUCOS**

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

6 Direktorioa



6.1 Direktorioa kontsultatzea

Hasierako pantailatik direktoriara sartzeko, sakatu  ⁽¹⁾ tekla beherantz edo sakatu **OK** tekla eta aukeratu menuko  ikonoa.

Zuzeneko sarbide bat pertsonaliza diezaiokezu zure kontaktuari teklak pertsonalizatzeko funtzioarekin (ikus 55. orrialdea).

Zuk 4 direktorio dituzu:



SIM direktorioa:

SIM txartelaren edukia operadorearen arabera da. Izen bati ezin zaizkio zenbaki bat baino gehiago lotu.



Orokorra:

Sortutako erregistro guztiak ditu. SIM txartelaren erregistroak ez dira automatikoki sortzen direktorio orokorrean, baina kopia daitezke.



Direktorio pertsonala:

Direktorio honetan zure zenbaki pertsonalak sailka ditzakezu (familia, lagunak, etab.).



Direktorio profesionala:

Direktorio honetan zure zenbaki profesionalak sailka ditzakezu (enpresak, etab.).

Direktorio horiez gain, zure direktorioak ere sor ditzakezu (ikus 35. orrialdea).

(1) Operadorearen arabera.

Izenak lehen letraren arabera bilatzea

Solaskidearen izena haren izenaren lehen letra sakatuz bila dezakezu.





Testuak idazteko modu espezifikoak behar duten hizkuntzen kasuan, bilaketa “**Buscar nombre**” aukera erabili daiteke.

Erregistroa kontsultatzea

Hautatu izen bat zure direktorioan, hautatu “**Opcion.**” aukera eta hautatu “**Consultar**”.


Zure solaskideari deitzea












Izena aukeratu ondoren, sakatu  tekla. Zure solaskideak zenbaki bat baino gehiago baditu, lehenengo zenbaki bat aukeratu behar duzu (etxea, mugikorra, bulegoa, etab.)  tekla sakatuta. Sakatu **ok** tekla deia egiteko.



Direktorioko eta agendako informazioak ordenagailu batekin truka daitezke, Alcatel-en PCrako programen paketearekin (ikus 93. orrialdea).

6.2 Erregistro bat sortzea

Hautatu erregistroa sortu nahi duzun direktorioa, sakatu eskuineko funtzio-tekla, hautatu “**Crear registro**” eta sakatu **OK** tekla. Edozein unetan, sartutako informazioa gorde dezakezu eskuineko funtzio-tekla sakatuta eta “**Guardar y Salir**” aukeratuta. Hurrengo eremura pasatzeko, sakatu **OK** tekla edo erabili  nabigatzailea.

Ekipoaren direktorioan kontaktu berri bat sortzean, gutxienez eremu hauetako bat bete behar duzu:  Identificación,  Cumpleaños,  Apodo,  URL,  Números,  Foto,  E-mail,  Dirección,  Notas  Info. personal I...4.  tekla sakatuta pasa zaitezke eremu batetik bestera.

“Cumpleaños” eremua betetzen baduzu, automatikoki, alarma bat sortzen da agendan.



Telefonoa atzerrian erabiltzen baduzu, gorde direktorioko zenbakiak nazioarteko formatua erabilia (“+”), atzetik herrialdearen kodea duela (ikus 19. orrialdea).

6.3 Erabilgarri dauden aukerak

Zure direktorioetako izenen zerrendatik, sar zaitetz aukera hauetara eskuineko funtzio-tekla sakatuta:

Consultar	<ul style="list-style-type: none">• Kontsultatu erregistro oso bat: izena, helbidea, helbide elektronikoa, etab.	Crear Dir.	<ul style="list-style-type: none">• Sortu zure direktorioa.
Crear Registro	<ul style="list-style-type: none">• Sortu erregistro bat (izena, zenbakiak, helbidea, helbide elektronikoa, etab.) nahi duzun direktorioa oinarri hartuta.	Vaciar Dir.	<ul style="list-style-type: none">• Ezabatu direktorio baten edukia.
Escribir mens.	<ul style="list-style-type: none">• Bidali SMS edo MMS bat kontaktu bati direktoriotik.	Borrar Dir.	<ul style="list-style-type: none">• Direktorio hori eta hango erregistroak desagertu egingo dira erabat (erabiltzaileak sortutako direktorioekin soilik erabil daiteke aukera hori).
Modificar	<ul style="list-style-type: none">• Aldatu erregistroaren edukia	Cop.TODO-> SIM/Móv	<ul style="list-style-type: none">• Kopiatu direktorio osoa adi bakarrean SIM direktorioan/ telefonoan, memorian tokia egonez gero.
Foto	<ul style="list-style-type: none">• Aukeratu bideo/argazki/irudi bat bilduman, erregistroarekin lotzeko (SIM direktorioan ezin da egin hori).	Marcación voz	<ul style="list-style-type: none">• Grabatu ahozko markaketa bat, SIM direktorioan izan ezik.
Borrar	<ul style="list-style-type: none">• Ezabatu hautatutako erregistroa.	Enviar	<ul style="list-style-type: none">• Trukatu datuak infragorrien bidez (ikus 67. orrialdea) edo Multimedia/MMS bidez.
Clasif. Registro	<ul style="list-style-type: none">• Mugitu erregistroa direktorio batetik beste direktorio batera.	Consejos & Trucos	<ul style="list-style-type: none">• Lortu erabiltzen ari zaren funtzioari buruzko informazioa eta abisuak.
Melodía Dir.	<ul style="list-style-type: none">• Lotu melodia bat hautatutako direktorioari.		

6.4 Direktorio berriak sortzea


Telefonoaren direktorio batetik, sakatu eskuineko funtzio-tekla... tekla eta aukeratu “**Crear Dir.**”, berretsi **OK** teklarekin eta eman izen bat sortutako direktorioari. 13 direktorio berri sor ditzakezu. Sortutako direktorioak bakarrik ezaba ditzakezu “**Borrar Dir.**” aukerarekin.


6.5 Ahozko markaketa

Ahozko markaketa funtzioarekin, solaskidearen izena esanda dei diezaiokezu, direktorioetan sartu gabe.

Telefonoaren direktorioan, hautatu erregistro bat eta berretsi eskuineko funtzio-teklarekin. Hautatu “**Marcación vocal**” eta berretsi berriz. Hiru bip-mota daude grabazioa hasi dela, gaizki grabatu dela edo ondo grabatu dela adierazteko. Grabatu ondoren, ahozko markaketarekin hau egin dezakezu: “**Escuchar**”, “**Reemplazar**” edo “**Borrar**”.



Ahozko markaketa grabatua duten erregistroek  ikonoa dute aldamenean. Ahotsa ezagutzeko funtzioa izan dezaketen izen-kopurua mugatua da. Funtzio hori direktorio guztietatik erabil daiteke, SIM txarteletik izan ezik.

Hasierako pantailatik, ahozko markaketa aktiba dezakezu  tekla sakatu (luze sakatu). Ondoren, segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.

6.6 Txirrin bat direktorio batekin lotzea

Telefonoaren direktorioan, aukeratu erregistro bat, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta aukeratu **“Melodía Dir.”**.

Telefonoaren direktorio horretan erregistratutako solaskide baten deia jasotzen duzunean, direktorio horri lotutako doinua entzungo da.

6.7 Irudi bat edo animazio bat edo bideo bat erregistro batekin lotzea

Hautatu erregistro bat telefonoaren direktorioan, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta hautatu **“Foto”**.

Dei bat jasotzean, solaskideari esleitutako argazkia, animazioa edo bideo bistaratuko da. kontaktu bakoitzari irudi bat edo bideo bat eslei diezaiokezu, baina sekula ez biak.

6.8 Konfidentzialtasuna

Zure direktorioko datuak babes ditzakezu (ikus **“Confidencialidad”** aukera 57. orrialdean).

7 Mezuak




Zure telefonotik, mezu laburrak (“**Texto/SMS**”) eta “**Multimedia/MMS**” mezuak kontsulta, idatz, jaso eta bidal ditzakezu ⁽¹⁾.

Multimedia mezuek aukera ematen dute bideoak, irudiak, argazkiak, animazioak, tonuak, ahots-mezuak (edo ahots MMSak: MMS sinplifikatuak, grabazioak mezu labur gisa bidaltzeko aukera ematen dutenak), hitzorduak (V.CAL) edo direktorioko erregistroak (V.CARD) beste mugikor bateragarri batzuetara eta helbide elektronikoetara bidaltzeko.



MMS multimedia funtzioa erabiltzeko, ezinbestekoa da operadoreak zerbitzu hori eskaintzea, kontratuan aukera hori egotea eta parametro guztiak MMSak bidaltzeko konfiguratzeko (ikus 48. orrialdea).

Hasierako pantailatik mezuetara sartzeko, sakatu  tekla⁽²⁾ gorantz edo sakatu **OK** tekla eta aukeratu “**Mensajes**” nabigazio-teklarekin eta berretsi **OK** ekla sakatuta.










Mezuen menuan aukera hauek daude:

- Crear mensaje
- Mensajes recibidos
- Mensajes enviados
- Buzón de voz
- SMS predefinidos
- Parámetros
- Memoria
- Borrar
- Consejos & Trucos

(1) Galdetu operadoreari MMS zerbitzua baduzun edo ez.


(2) Operadorearen arabera.

Zure mezuak **kontsultatzean**, ikono hauek bistaratzen dira:

- mezu-mota:  SMS mezu,  MMS mezu,  MMS jakinarazpena,  MMSa bidaltzen,  soinudun MMSa,  bideodun MMSa,  transferitu ezin diren elementu babestuak dituen MMSa.
- mezuaz zein memoriatan gorde den:  SIM txartelean gordetako mezu (SMS bakarrik),  telefonoan gordetako mezu (MMS jakinarazpenak).



7.1 Mezuak jasotzea eta irakurtzea


7.1.1 SMS

Mezu labur berri bat iristean, “**¿Nuevos mensajes?**” mezu bistaratuko da, seinale akustiko bat entzungo da,  dagokion ikonoa agertuko da eta marra bat agertuko da mezu-kopuruarekin. Hautatu lerro hori eta sakatu **OK** kontsultatzeko. Seinale akustikoa aldatzeko edo desaktibatzeko, ikus 50. orrialdea.

7.1.2 MMS

Hiru aukera dituzu MMS mezuen harrera kudeatzeko: berehala jasotzea, geroago jasotzea edo jasotze mugatua. Berretsi egindako aukera “**Parámetros/Parámetros MMS**”-ko “**Modo**” aukeran:

- “**Inmediato**”: itxarote-egoeran,  konoak adierazten du mezu bat deskargatzen ari dela; gero, “**¿Nuevos mensajes?**” mezu bistaratzen da, seinale bat entzuten da eta  konoa eta barra bat agertzen dira mezu-kopurua adieraziz. Hautatu barra hori eta sakatu **OK** tekla MMSa hautatzeko eta irekitzeko.

- **“Diferido”**: Zuk jakinarazpen bat jasoko duzu bidaltzailearen izena eta zenbakia eta mezuaren izenburua aipatuz (izenburu hori gorde bada). Edozein unetan deskarga dezakezu MMSa irakurtzeko. Irakurri gabe ere ezaba dezakezu; kasu horretan, MMSa bidali duenak ohar bat jasoko du ez duzula onartu jakinaraziz (“Nacional” moduan bakarrik).
- **“Limitado”**: **“Diferido”** moduaren prozedura bera du, baina ez da jasotzen inolako oharrik,  ikonoa bistaratzen da (“Internacional” moduan soilik).

Bideoak, argazkiak, irudiak edo soinuak jaso ditzakezu MMS bidez. **“Opcion./Guardar objetos”** hautatuta, bideoklipak, irudiak, soinuak edo objektu horiek guztiak gorde ditzakezu. Objektu bat baino gehiago gorde nahi badituzu, gorde lehenik zerrendako aurreneko objektua, eta, ondoren, hautatu **“Siguint.”** gainerakoak gordetzeko. Horrela, multimedia bilduman gordeko dira denak.

7.1.3 Mezuak jasotzean edo kontsultatzean erabil daitezkeen aukerak (Mensajes Recibidos/Mensajes enviados menuetan)

Oro har, aukera hauek guztiak dituzu:

Borrar	• Ezabatu mezua.	Archivar mensaje	• Grabatu zure mezua “Archivo” karpetan (telefonoaren memoria).
Responder	• Erantzun SMS, MMS edo ahots MMS bidez.	Por fecha/ Por tamaño	• Sailkatu irakurritako mezuak dataren edo tamainaren arabera (lehenespenez, dataren arabera).
Reenviar	• Bidali mezua beste pertsona batzuei.		

Gero, egoeraren arabera (mezua jasotzea, jasotako/bidalitako mezua bat irakurtzea, SMS edo MMS motako mezua), aukera hauek dituzu:

Opciones adicionales SMS

- | | | | |
|------------------------|---|---------------------|---|
| Guardar Imagen | • Gorde mezuarekin batera jasotako irudia. | Guardar Núm. | • Gorde mezuarekin batera jasotako zenbakia edo helbide elektronikoa. |
| Guardar Anim. | • Gorde mezuarekin batera jasotako animazioa. | Lanzar WAP | • Joan mezuarekin batera jasotzeko WAP helbidera. |
| Guardar Melodía | • Gorde mezuarekin batera jasotako doinua. | Zoom | • Aktibatu edo desaktibatu zooma. |
| Guardar Predef. | • Gorde mezua aurrez zehaztutako mezua gisa. | | |

Opciones adicionales MMS:

- Jasotako/bidalitako mezuetan MMS bat hautatzean ⁽¹⁾:

- | | | | |
|-------------------------|--|-------------------------|--|
| Abrir/ Recuperar | • Irakurri hautatutako mezua (gero hartzeko modua hautatu baduzu, deskargatu) | Respond. a todos | • Erantzun MMSaren hartzaile guztiei. |
| Detalles | • Sartu MMSaren xehetasunetan: fecha, título, tamaño, clase, prioridad, grupo de difusión, acuse recibo. | Guard.núm/ Email | • Gorde zenbaki edo helbide elektronikoa batzura direktorioan. |

(1) Aukeratutako harrera-moduaren araberako aukerak.

- MMS bat irakurtzean:

Reiniciar

- Berrabiarazi mezuak kontsultatzeko aukera.


Guardar objetos ⁽¹⁾

- Gorde MMS bidez jasotako bideoklipak, irudiak edo soinuak, uneko orritik.

**Con sonido/
Sin sonido**

- Bistaratu zure MMSak soinuarekin edo soinurik gabe.

Gainera:

- MMSan WAP helbide bat, helbide elektronikoa bat edo telefono-zenbaki bat badago, bi aukera dituzu: hautatu “**Opcion.**” Esteka gordetzeko edo hara joateko (wap esteka bat atera, helbide elektronikoa bat bidali edo bistaratutako zenbakira deitu).
- MMSak orri bat baino gehiago baditu, automatikoki pasatzen da batetik bestera. Berriz irakurtzen hasteko, hautatu “**Reiniciar**” aukera edo erabili  nabigatzailea.

7.2 Mezuak idatzi eta bidaltzea




7.2.1 SMSa idaztea

Menu nagusitik, hautatu “**Mensajes/Crear mensaje**”, gero “**Texto/SMS**”, eta sakatu **OK** tekla. “**SMS predefinidos**” hautatuta ere alda ditzakezu aurrez definitutako mezuak.

Telefonoan irudiak, soinuak edo aurpegierak gehituz pertsonaliza ditzakezu zure mezuak: mezu bat idaztean, hautatu aukera hauek **OK** teklarekin:

(1) – Objektu bat bada: sakatu **OK** gordetzeko.
– Hainbat objektu badira: sakatu “**Opcion.**”, aukeratu objektuak banan-banan “**Siguiente**” aukeratuta eta sakatu **OK** gordetzeko.

- Enviar a** • Bidali mezua
- Por MMS** • Mezua oso luzea bada edo irudiak edo soinuak erantsi nahi badituzu.
- Añadir Cara** • Erantsi aurpegiera bat mezuari.
- Añadir imagen** • Erantsi ikono bat mezuari.
- Añadir Melodía** • Erantsi soinu bat mezuari.
- Añadir Favorito** • Erantsi web gune bat mezuari.
- Símbolos** • Joan sinboloen taulara.
- Predictivo** • Pasatu modu prediktibora.
- Vista previa** • Bistaratu zure mezua.
- Guardar** • Gorde mezua (“**Mensajes recibidos/No enviados**”) eta bidali geroago.

“**Vista previa**” hautatzean, zure mezua edukia bistara dezakezu:   ta  sinboloek irudikatzen dituzte ikonoak, soinuak eta aurpegierak. Soinu eta irudi berriak WAP bidez ere deskarga ditzakezu (ikus 93. orrialdea).



160 karaktere baino gehiagoko mezua idazten baduzu eta ikonoak, soinuak edo aurpegierak sartzen badituzu, hainbat mezu fakturatuko dira. Galdetu zure operadoreari.

Mezua hartzailerak EMS estandarrekin bateragarria den telefono mugikor bat izan behar du, mezua ikonoak eta aurpegierak bistartzeko eta soinuak entzuteko.

Mezuak bidaltzeko aukerak

- Directorio** • Bidali direktorio batean gordetako pertsona bati edo hango helbide elektronikoa batera.
- Mi favorito** • Bidali gogokoen duzun kontaktuari.
- Varios destinat** • Bidali hainbat laguni haien zenbakiak eskuz markatuz edo direktorioaren bidez.
- Lista Difusión** • Bidali bidalketa-parametroetan aurrez definitutako pertsona-talde bati (“**Lista Difusión**” aukera).

“**Parámetros/Parámetros SMS**” aukeran “**(AR)**” aktibatuta badago (ikus 47. orrialdea), bidalitako mezuek kontsultatzean, sinbolo hauek bistaratuko dira:

- ✓ **Mens. recibidos:** mezua bidalita eta jaso izanaren adierazpena jasota.
- ✗ **Mens. No Recib.:** mezua bidalita eta jaso izanaren adierazpenaren zain, edo mezua ez da ondo bidali. Bidali mezua berriz.

Sarrera-modu prediktiboa hautatuz gero, beste aukera batzuk daude (ikus 45. orrialdea).

7.2.2 MMS bat idaztea

Menu nagusitik, hautatu “**Mensajes/Crear mensaje/Multimedia/MMS**” eta sakatu **ok** tekla. Lehenespenez, edizio modua aktibatuta egoten da.

Mezu honek orri bat baino gehiago izan ditzake (gehienezko memoria: 50 kB edo 100kB, modeloaren eta operadorearen arabera). Zure MMSa sortzean, erabilitako memoriari buruzko informazioa jasotzen duzu (orri guztiak barne hartuta).

“**Mi e-mail**” aukerari esker, irudiak, bideoklipak, soinuak eta abar bidal ditzakezu zure PCra.

“**Parámetros/Parámetros MMS**” menuan hartu izanaren abisua “**(AR)**” aktibatu bada, “**Detalles**” aukeraren bidez kontsulta dezakezu hartu izanaren abisua mezua hautatzean (ikus 48. orrialdea).



Zure MMSei erregistro bereziak ere gehi diezazkiekezu, zure direktorioko erregistroak (Vcard) edo zure agendako hitzorduak (Vcal) adibidez; erantsitako elementu horiek orri independenteetan agertzen dira (hautatu “**Adjunto**” aukera).

Aukera hauek MMS hutsentzat nahiz beteentzat, erregistro erantsia dutenentzat nahiz ez dutenentzat balio dute:

- | | | | |
|------------------------|---|-------------------------|--|
| Enviar a l solo | <ul style="list-style-type: none">• Bidali zure “Directorio”-ko kontaktu bati edo markatu (“Marcar”) zenbaki bat edo helbide elektronikoko bat eta hautatu “Mi favorito” edo “Mi e-mail”. | Añadir Favoritos | <ul style="list-style-type: none">• Erantsi gogoko tokien zerrendako URL bat (ikus 71. orrialdea). |
| Enviar a varios | <ul style="list-style-type: none">• Bidali pertsona bati baino gehiagori haien zenbakiak markatuz (“Marcar”) edo direktorioan (“Directorio”) edo taldean (“Lista Difusión”) hautatuz. | Opciones texto | <ul style="list-style-type: none">• -“>Directorio”: sartu kontaktu baten zenbakia.• -“Símbolos”: sartu sinbolo bat.• -“Predictivo”: aldatu modu arruntetik prediktibora eta alderantziz. |
| Añadir Imagen | <ul style="list-style-type: none">• Erantsi irudi edo animazio bat “Álbum imágenes”-etik edo sortu “Cámara” funtzioaren bidez. | Sustituir | <ul style="list-style-type: none">• Aldatu MMSko objektu bat. |
| Añadir Vídeo | <ul style="list-style-type: none">• Gehitu bideo bat “Álbum” funtzioarekin. | Eliminar objeto | <ul style="list-style-type: none">• Kendu MMSko objektu bat. |
| Añadir sonido | <ul style="list-style-type: none">• Gehitu soinu bat, “Álbum” funtzioarekin, edo ahots mezu bat. | Añadir página | <ul style="list-style-type: none">• Erantsi orri bat MMSari. |
| Añadir texto | <ul style="list-style-type: none">• Idatzi testua. | Página anterior | <ul style="list-style-type: none">• Mugitu MMSaren aurreko orrira. |
| Añadir asunto | <ul style="list-style-type: none">• Jarri izenburua MMSari. | Página Siguiete | <ul style="list-style-type: none">• Mugitu MMSaren hurrengo orrira. |
| | | Borrar página | <ul style="list-style-type: none">• Ezabatu uneko orria. |
| | | Adjunto | <ul style="list-style-type: none">• Gehitu Vcal edo Vcard bat. |
| | | Vista previa | <ul style="list-style-type: none">• Bistaratu sortutako MMSa. |
| | | Guardar | <ul style="list-style-type: none">• Gorde mezua berehala bidali nahi ez baduzu. |

MMS, SMS edo ahots MMS bidez erantzun diezaiokezu MMS bati⁽¹⁾. Testua soilik bidaltzeko, SMSak erabiltzea gomendatzen da.

Zure MMSa geroago bidali nahi baduzu (beste objektu edo argazki batzuk eransteko adibidez), gorde MMSa (“**Archivar mensaje**”) zirriborro gisa “**Mensajes enviados/No enviados**” karpetan. Gero, hautatu eta egin klik “**Opciones**” aukeran MMSa bidali aurretik aldatzeko edo objektuak eransteko edo kentzeko.

Akatsen bat gertatuz gero, mugikorrak automatikoki berrabiaraziko du bidalketa ⁽¹⁾. Bidalketa automatikoa hasten saiatzen zaren bakoitzean,  ikonoa agertuko da pantailan eta “**Mensajes enviados/No enviados**” karpetan. Behin betiko akatsa gertatuz gero, mezu bat jasoko duzu eta  ikonoa agertuko da “**No enviados**” karpetan. MMSa berriz bidaltzeko, aldatzeko edo ezabatzeko, sakatu **OK** tekla hautatu eta gero.

7.2.3 Ahots MMSa sortzea (Grabazioa)

Hasierako pantailatik, hautatu “**Mensajes/Crear mensaje/Voz/VozMMS**”. Funtzio horrek mezuak bizkor bidaltzeko aukera ematen du, idatzi gabe, solaskideari etenik eragin gabe; hark MMS arrunt bat bezala jasoko du. Edozein mezuri erantzun diezaiokezu “**Voz/Voz MMS**” aukerarekin.

7.3 Testua sartzeko sistema prediktiboa

SMSak edo MMSak bizkor idazteko aukera ematen du “**Predictivo**” sistemak. Mezu bat idatzi nahi duzunean, sakatu “**Opcion**.”funtzio-tekla, hautatu “**Predictivo**” zure SMSentzat edo “**Opciones texto**” eta “**Predictivo**” MMSentzat, eta tekleatu datuak. “hello” idazteko, adibidez, sakatu behin tekla hauek: **4**ghi, **3**def, **5**jkl, **5**jkl, **6**mⁿ. Baliteke bistaratzen den hitza zuk nahi duzunarekin bat ez etortzea; ez hartu kontuan hasieran proposatutako hitzak, bilaketa hitzak sartu ahala hobetzen baita.



⁽¹⁾ Voz MMSa MMS arrunta da, soinu bat du AMR formatuan eta AMR IETF telefono bateragarrietan eta soinu-deskodematzaila egokia duten ordenagailuetan bakarrik daiteke. Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Modu prediktiboan, markatu lehen letra:











- hitz bati baldin badagokio (“o” adibidez), letra bistaritzen da.

- hitz bati ez baldin badagokio (“h” adibidez), “*” sinboloa bistaritzen da.



Kurtsorea bistaratzeko era testua idazteko moduaren araberakoa da:  modu prediktiboan,  modu normalean.

Hitza berresteko eta tarte sartzeko, sakatu  eskuinera edo  tekla gora edo  tekla.

Modu arrunteko / modu prediktiboko tekla espezifikoak

  **Labur sakatuta:** maiuskula automatikoak erabiliz   maiuskulaz   minuskulaz   zifrak   idazteko moduetara aldatzen da.

Luze sakatuta: modu arruntetik modu prediktibora eta alderantziz aldatzen da.

  **Arrunta:** “+”, “0” edo “•” sinboloak idazteko erabiltzen da.

Prediktiboa: hiztegiko gainerako hitzak bistaritzen ditu.

  **Arrunta:** sinboloen taula bistaritzen da.


Erabilgarri dauden aukerak

Idazteko modu arruntean dauden aukerez gain, beste aukera hauek ere badaude:

Aceptar Palabra	• Berretsi aukeratutako hitza.	Añadir Números	• Aldatu zenbakizko modura.
Otras palabras	• Ikus proposatutako beste hitzen zerrenda.	Normal	• Aldatu modu arruntera.
Añadir Palabra	• Erantsi hitz bat hiztegian.	Idioma	• Erabili beste hizkuntza bateko hiztegia.
		Guardar	• Gorde mezua.

Telefonoan hiztegi pertsonala duzu eta hor hitzak gehitu ⁽¹⁾, aldatu edo ezaba ditzakezu. Mezu bat idaztean, hitz bat gehi dezakezu **OK** tekla sakatuta eta “**Añadir Palabra**” aukera hautatuta.

7.4 Parametroak

Menu nagusitik, hautatu “**Mensajes**”, eta, nabigatzailea eskuinerantz erabiliz, hautatu  ikonoa.

7.4.1 SMS parametroak

- **CS** ⁽²⁾: zure operadorearen zerbitzu-zentroaren zenbakia (automatikoki eman daiteke)
- **EC** ⁽²⁾: mezu elektronikoko bat bidaltzeko erabilitako zerbitzariaren zenbakia (automatikoki eman daiteke).
- **AR**: mezua bidaltzean, jaso izanaren jakinarazpena eskatzea.
- **Val**: huts eginez gero, epe horren barruan mezua berriro hartzaileari bidaliko dio sareak.
- **Tipo**: hartzaileari bidali beharreko mezu-mota (SMS, faxa, etab.).
- **Mem**: SMSak telefonoaren memorian edo SIM txartelean gorde daitezke (ikus 48. orrialdea).

⁽¹⁾ Jarri harremanetan zure operadorearekin.

⁽²⁾ Eskatu operadoreari eremu horiek betetzeko informazioa.

7.4.2 MMS parametroak

- **Perfil MMS** ⁽¹⁾: MMSaren konexio-profila konfiguratzeko, WAP konexioa konfiguratzeko bezala egin (ikus 71. orrialdea).
- **Modo**: aukera honekin berehala edo geroago jasotzea hauta dezakezu estaldura nazionalan, eta geroago jasotzea edo jasotze mugatua nazioarteko estalduran (ikus 38. orrialdea).
- **AR**: bidaltzen den mezu bakoitzeko jaso izanaren jakinarazpena eskatzea.
- **Val**: huts eginez gero, epe horren barruan mezua berriro hartzaileari bidaliko dio sareak.
- **Mem**: bidalitako mezua automatikoki gorde daitezke.
- **Temporizador**: orri batetik bestera pasatzeko abiadura konfiguratzeko.
- **Filtros**: igorle ezezagunen MMSak iragaztea: mezu anonimoak jasotzea edo ez onartzea.
- **Presentación**: aurkezpen-ordena hautatu: irudia eta ondoren testua, edo testua eta ondoren irudia.

7.4.3 Erregistro-parametroak

Mezuak gordetzeko parametroak alda ditzakezu:

- Bidalitako mezu laburrak telefonoaren memorian gordetzen dira lehenespenez:
Hautatu “**Parámetros SMS**” eta “**Mem:**” eta aukeratu “**Memoria SIM**”, “**Memoria teléfono**” edo “**No guardar**”.
- Bidalitako MMSak telefonoan gordetzen dira lehenespenez:
Hautatu “**Parámetros MMS**” eta “**Mem:**” eta aukeratu “**Memoria teléfono**” edo “**No guardar**”.

(1) Eskatu operadoreari eremu horiek betetzeko informazioa.

Oharra:

- jasotako SMSak SIM txartelaren memorian gordetzen dira beti.
- jasotako MMSak telefonoaren memorian gordetzen dira beti.

Mezu-mota edozein dela ere, “**Archivados**” karpetan gordetzeko aukera duzu; produktuaren memorian gordeko dituzu horrela.

7.4.4 Hedapen-zerrenda bat sortzea

“**Parámetros**” karpetan, hautatu “**Lista Difusión**”, berretsi **OK** klarekin eta sartu taldearen izena. Ondoren, idatzi taldea osatuko duten hartzaileen zenbakiak.


7.4.5 Nire gogokoa

Sartu gogoko kontaktuaren zenbakia edo helbide elektronikoa. Orduan, mezu bat bidali nahi diozunean, hautatu “**Enviar**” eta “**Mi favorito**” zuzenean, direktorioan bila ibili gabe.

7.4.6 Nire helbide elektronikoa


Sartu zure helbide elektronikoa (“**Mi e-mail**” aukeraren bidez “**Registro llamadas**” menuan sartuta ez badago), irudiak, argazkiak, soinuak eta abar bidali ahal izateko MMS bidez zure ordenagailura.

7.5 Mezuak ezabatzea

SIM txartelean edo produktuko mezu guztiak ezabatzeko, hautatu  ikonoa eta hautatu aukera hauetako bat:


- “**Borrar mens.SIM**”: SIM txartelean gordeta dauden mezu guztiak (jasotakoak nahiz bidalitakoak) ezabatzen ditu.
- “**Borrar mens. telef.**”: produktuan gordetako mezu guztiak ezabatzen ditu.



SIM txartelaren edukia operadorearen araberakoa da. Memoria beteta dagoenean,  ikonoa bistaritzen da. Ezabatu mezu batzuk SMS berriak jaso ahal izateko.

8 Pertsonalizatzea






Hasierako pantailatik, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko.



8.1 Soinuak


8.1.1 Erabilgarri dauden funtzioak


Soinu-parametroak aldatzeko, hautatu dauden aukerak   tekla erabiliz:


 Aukeratu doinu bat  tekla erabilia eta berretsi **OK** tekla sakatuta. Ausaz ere hauta dezakezu doinu funtzio bat zerrenda honetan, “**Melodía sorpresa**” izenekoa (ikus 51. orrialdea).


 Modua (arrunta, neurritsua, bibragailua, etab.).

 Doitu bolumena  teklarekin.

 Aukeratu teklen tonu-mota.

 Hautatu mezu berriei dagokien doinua.


 Hautatu hitzordu berriei dagokien doinua.

 Hautatu alarma berriei dagokien doinua.

 Hautatu sareko konexioaren soinu-mota. ⁽¹⁾.

⁽¹⁾Jarri harremanetan zure operadorearekin.

8.1.2 Modua

Normal	<ul style="list-style-type: none">• Txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).	Vibrador & Melodía	<ul style="list-style-type: none">• Bibragailua eta txirrin arrunta aldi berean.
Discreto	<ul style="list-style-type: none">• Bip batzuk eta ondoren txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).	Vibr.Bip. Melodía	<ul style="list-style-type: none">• Bibragailuaren ondoren bip batzuk eta gero txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).
Vibrador	<ul style="list-style-type: none">• Bibragailua aktibatzen da eta gainerako seinale akustikoak desaktibatzen dira (txirrina, mezuen tonua, hitzorduen alarma, bateria deskargatuta dagoela adierazteko bip-a). ... ikonoa bistaratzen da.	Bip + Vibrador Silencio	<ul style="list-style-type: none">• Bip-a eta, ondoren, bibragailua.• Ez da ez soinurik ez bip-seinalerik entzuten; alarmak bakarrik.  ikonoa bistaratzen da.



Osagarriren batzuekin, modu horiek desaktibatu egin daitezke (ibilgailurako full duplex esku libreko kita, etab.).

8.1.3 Ustekabeko doinua

Doinuen zerrendatik gora, sartu “**Melodía sorpresa**” aukeran eta hautatu nahi dituzun doinu guztiak. Gero, mugikorrek horietako edozein doinu joko du dei bat jasotzean.

8.2 Pantaila

8.2.1 Koloreak

Funtzio honek telefonoko estilo grafikoak eta koloreak pertsonalizatzeko aukera ematen dizu (menuen pantailak, datuak sartzeko pantailak, etab.).

8.2.2 Hasierako pantaila

Telefonoa piztean eta/edo funtziorik erabiltzen ez duzunean (deiak, mezu laburrak bidaltzea, etab.) bistaratzen da hasierako pantaila.

Teklatua blokea dezakezu * tekla luze sakatuta.

Hasierako pantailatik, zuzenean sar zaitezke funtzio nagusietara nabigatzailearekin edo pantailako ikonoak hautatuz⁽¹⁾.

“**Pantalla espera**” aukeratuta, pantaila hori pertsonalizatzeko aukera duzu, eta, hartara, telefonoan lehenespenez bistaratzen den irudia edo animazioa ordezka daiteke. Zerbait jasotzen baduzu (sarrerako deia, SMS/MMSak, oharrak, etab.), hasierako pantailan ikonoa, mota eta kopurua bistaratuko dira; hala, zuzenean kontsulta ditzakezu.

8.2.3 Pantaila-babesa

Aukera hori aktibatuta, pantaila-babesa bistaratzen da hasierako pantailaren atzetik. Pantaila-babes gisa, argazki bat, animazio bat, diapositibak edo bideoklip bat hauta ditzakezu.



Bi kasuetan, bai hasierako pantailan bai pantaila-babesean, energia aurrezteko modua bistaratzen da denbora bat igarotzean, eta bateriaren karga-maila, estaldura-adierazlea eta gutunazal bat (emanaldi baterako) soilik erakusten ditu.

8.2.4 Inguruneak

“**Ambientes**” menuan telefonoa bizkor pertsonaliza dezakezu zure gustuen arabera; berez, automatikoki eta txanda bakarrean pertsonalizatzeko 7 elementu alda ditzakezu. Ingurunea elementu hauez osatuta dago:

⁽¹⁾ Operadorearen arabera.

- Ikusten diren 4 elementu: - Pizteko pantailako irudia/animazioa
- Itzaltzeko pantailako irudia/animazioa
 - Hasierako pantailako irudia/animazioa
 - Estilo grafikoak eta koloreak

- Entzuten diren 3 elementu:- Jasotako deietarako doinu bat
- Pizteko doinu bat
 - Jasotako mezuen alarmentarako doinu bat

Lehen aldiz erabiltzean, lehenetsitako ingurunea aktibatuko da.

Ingurune bat aldatzeko aukera duzu osatzen duten elementuak banaka aldatuz. Edozein unetan aktiba daiteke berriro ingurune bat.

Ingurunea aldatzen ari den bitartean, instalazio-pantaila bat bistaratzen da 7 elementuak aldatu bitartean.



Ingurunea instalatzeko prozesua geldiarazi egin daiteke, dei bat jasotzen bada edo **C** tekla sakatzen bada. Kasu horretan, lehendik hautatuta zegoen Ingurunea geratzen da ezarrita.

8.2.5 Pizteko/itzaltzeko pantaila ⁽¹⁾

Telefonoa piztean bistaratzen diren ongietorriko mezua, animazioa, doinua edo irudia pertsonaliza ditzakezu.

Telefonoa itzaltzeko pantaila ere pertsonaliza dezakezu, irudi bat edo animazio bat hautatuta.

⁽¹⁾ Modeloaren arabera.

8.2.6 Zooma ⁽¹⁾

Zure telefonoak bi tamainako karaktereak bistara ditzake. Karaktere handiak bistaratzea da lehenetsitako aukera. Informazio gehiago bistaratu nahi baduzu, hautatu “**Zoom**”.

8.2.7 Kontrastea

Doitu pantailaren kontrastea.


8.2.8 Menua ikustea

Hautatu menuen estiloa hiru proposamenetako bat aukeratuta:

- **Animaciones:** ikono baten bistaratze osoa eta bi ikonoren bistaratze partziala (aurrekoa eta ondorengoa)
- **Imagen:** ikono osoa pantailan
- **Mosaico:** ikono guztiak mosaiko-eran agertzen dira pantailan.

8.3 Erlojua

Une berean bi erloju bistara ditzakezu (tokian tokikoa eta beste nonbaitekoa).

Hautatu lehenik “**Tipo reloj**”  ikonoa, eta aukeratu “**2 relojes**”. Gero, itzuli “**Ajustar reloj**” aukerara, hautatu “**Reloj local**”, aukeratu hiri bat eta berretsi. Udako edo neguko ordutegira automatikoki aldatzea aktibatuta dago. Egizu gauza bera “**Segundo reloj**” aukeran.

Ikusteko formatua

Erlojua formatu analogikoan edo digitalean bistara dezakezu eta data formatu hauetan, eguna/hila/urtea, hila/eguna/urtea edo urtea/hila/eguna, egunaren eta hilaren zenbakia edo lehen hiru letrak erabilia.

⁽¹⁾ Hizkuntzaren arabera.

8.4 Teklak pertsonalizatzea

Hasierako pantailatik, joan funtzio honetara “**Personalización**” eta “**Teclas**” hautatuta.


8.4.1 Tekla pertsonala/operadorea/eta funtzio-teklak ⁽¹⁾

Tekla hauen funtzioak aldatu egiten dira telefonoaren modeloen arabera (operadorearen zerbitzuak, jokoetarako sarbidea, Jokoak & Aplikazioak etab.). Zuk pertsonaliza ditzakezu ⁽¹⁾, luze eta labur sakatuta nahi dituzun funtzioak emanda. Adibidez, Agendara zuzenean sartzeko funtzioa, mezuak idaztekoa eta abar eslei diezazkiekezu.

8.4.2 Teklatua

Teklak pertsonalizatzeko funtzioari esker, hasierako pantailatik zuzenean solaskide bati dei diezaiokezu edo funtzio batera sar zaitezke.

Tekla bat programatzeko, hautatu “**Teclado**” eta programatu nahi duzun tekla. Ondoren, aukeratu:

- “**Directorio**”: hasierako pantailatik zuzenean kontaktu batera joateko, sakatu kontaktu horren izenaren lehen letrari dagokion tekla, adibidez, sakatu  tekla “PETERSON John” kontaktura heltzeko.
- “**Personal.teclas**”: programatutako zenbaki edo funtzioetarako zuzeneko sarbidea. Aldatu nahi izanez gero, sakatu “**Opciones**” funtzio-tekla, hautatu “**Modificar**” eta, gero, hautatu programatu beharreko lehen tekla.

Ondoren, joan “**Mis atajos**” aukerara menu orokorretik.

⁽¹⁾ Operadorearen arabera.

8.5 Beste doikuntza batzuk...

8.5.1 Teklatua blokeatzea

Aktibatu/desaktibatu teklatua automatikoki blokeatzeko aukera.



Telefonoa ibilgailurako kitarekin edo kargagailuarekin konektatuta badago, teklatua automatikoki desblokeatzen da.

8.5.2 Hizkuntza ⁽¹⁾

Mezuak bistartzeko hizkuntza (aukeratu  teklarekin). “**Automático**” aukerarekin, abonatuta zauden sareko hizkuntza hautatzen da (zure telefonoan hizkuntza hori erabilgarri badago).

8.5.3 Hiztegia

Telefonoan hiztegia duzu. Hiztegi horretan hitz pertsonalak sar ditzakezu; baita testua idazteko sistemak erabiltzen dituenak ere. Zure hiztegia kontsultatzean, hitzak sartu, aldatu edo ezaba ditzakezu “**Opciones**” erabilia.

8.6.4 Testua sartzeko moduak ⁽²⁾

Zure telefonoak testua idazteko zenbait modu ditu, baita karaktereen taula ere (arabiera, zirilikoa, txinera). Funtzio honi esker, mezu laburrak idatz ditzakezu eta izenak sar ditzakezu zure direktorioan.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Hizkuntzaren arabera.

8.5.5 Luzapenak

Aukeran duzu bildumako argazki, bideo eta soinuen luzapenak azaltzea edo ez.

8.5.6 WAPera sartzeko funtzioak

(ikus 71. orrialdea).

8.5.7 Konfidentzialtasuna

Aukera honentzat **“Activar”** hautatuta, zure agendako eta direktorioko datuak babesten dituzu. Bereziki interesgarria da PC sinkronizazioa erabiltzen denean.

8.5.8 Segurtasuna

Código PIN ⁽¹⁾	SIM txartelaren babes-kodea. Kode hau aktibatuta dagoenean, telefonoa pizten den bakoitzean eskatzen da.
Activar/ Desactivar	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Cambiar	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).
Código PIN2 ⁽¹⁾	SIM txarteleko funtzio batzuk (Factura/Coste/FDN) babesteko kodea; kode hori aktibatuta dagoenean eskatzen da.
Cambiar	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).

⁽¹⁾Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Código red ⁽¹⁾	Sareko kodea, sarearekin lotutako zenbait aukeratarara (“ Prohibidas ”) sartzeko eskatzen da.
Código Menú	Menuko zenbait aukera (Servicios, Ajustes, Idiomas) babesteko kodea; kode hori aktibatuta dagoenean eskatzen da.
Activar/ Desactivar	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Cambiar	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).
Código Teléfono	Telefonoaren babes-kodea. Kode hau aktibatuta dagoenean, telefonoa pizten den bakoitzean eskatzen da.
Activar/ Desactivar	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Cambiar	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).

8.5.9 Sarea

Lista Difusión ⁽²⁾	Sare bidez banatutako mezuak (meteorologia, zirkulazioa, etab.) hasierako pantailan automatikoki bistaratzen dira.
• Lista Difusión	Bistaratu diren mezuen kodeen zerrenda.
• Recepción	Hautatutako aukeraren arabera, sare bidez zabalduko mezuak bistaratzen ditu telefonoak.
Limitada	Telefonoak aldizka jasotzen ditu mezuak eta zerrendaren arabera bistaratzen ditu (ikus “ Lista Difusión ” aukera).
Completa	Telefonoak era iraunkorrean jasotzen ditu mezuak eta zerrendaren arabera bistaratzen ditu (ikus “ Lista Difusión ” aukera).
Ninguna	Telefonoak ez du mezurik jasotzen.

⁽¹⁾ Jarri harremanetan zure operadorearekin.

⁽²⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Búsqueda Konexio-sarearen bilaketa.



- Disponibles Zure inguruan erabilgarri dauden sareen zerrenda.
- Modo Hautatutako aukeraren arabera, sarea honela bila daiteke:
 - Automático Telefonoa azkena erabili den sarera konektatzen da aurrena.
 - Manual Telefonoa erabiltzaileak hautatutako sarera konektatzen da.
- Preferidas Konektatu nahi duzun lehentasunezko sareen zerrenda (zerrenda eguneratzeko, sakatu **OK**).

Banda Hautatu maiztasun-banda.

8.5.10 Osagarriak

Hautatu hartzeko modua esku-libreko eramangarria edo ibilgailurako kita erabiltzeko.

Manos libres portátil

 tekla  tekla sakatu ondoren bakarrik.

Automático Automatikoki (teklarik sakatu gabe), gutxi gorabehera 2 txirrin-soinu egin ondoren (aukera hau bakar-bakarrik aktibatzen da zure telefonoa audio osagarri batera edo esku libreko kitera konektatuta badago).

CualquierTec. Teklatuko edozein tekla sakatu ondoren (I - #).

Modo audio Esku-libreko eramangarriak berak bakarrik jotzen du edo telefonoarekin batera jotzen du.

Kit vehículo

Hautatu esekitzeko modua:  tekla, automatikoa edo edozein tekla.

9 Nire lasterbideak.....

Sartu zuk zeuk programatutako lasterbideetara.

Beste lasterbide batzuk programatzeko, hautatu “**Crear mis atajos**” funtzio, telefono-zenbaki edo WAP gune gogoko baterako sarbide azkarra nahi baduzu.

Lasterbide berriak gehitzeko, “**Personalización**” funtziotik egin dezakezu.

10 Tresnak.....








10.1 Agenda

Zure telefonoak antolatzaile sofistikatua du; antolatzaile horren bidez, denboraren erabilera kudea dezakezu. Zereginen zerrenda ere memoriza dezake.


Agenda kontsultatzea

Hiru egutegi dituzu. Lehenengo, nahi duzun ikonoa aukeratu behar duzu:

-  Egunen araberako egutegia
-  Asteen araberako egutegia
-  Hilren araberako egutegia
-  Egin beharreko zereginak
-  Parametroak

Egutegian zehar mugitzeko, sakatu  tekla.


Egutegiaren arabera, elementu bat kontsulta, sor, alda edo bidal dezakezu.


-  Direktorioko eta agendako informazioak ordenagailu batekin truka daitezke, Alcatel-PCrako programen paketearekin (ikus 93. orrialdea).

Hitzordu bat sortzea eta alarma bat programatzea

Hitzordu bat sortzen duzunean (“**Crear**” aukera) alarma aktiba dezakezu. Alarma aktibatzeko ordua programa dezakezu, hitzorduaren orduaren arabera.

Zeregina sortzea

Joan zaitez  ikonora ◀▶ teklarekin eta sakatu **OK** tekla. Aukeratu “**Selección tipo**”, berretsi berririo **OK** teklarekin eta sartu egin beharreko zeregin-mota (“**tarea por hacer**” edo “**llamada por hacer**”) eta gaia.

Zerrenda hori epemugaren edo lehenetasunen arabera ordena daiteke. Horretarako, joan  ikonora ◀▶ tekla erabilia eta berretsi **OK** teklarekin.

Epemuga duen zeregin batentzako alarma sor dezakezu. Alarma horrek finkatutako egunean joko du, finkatutako orduan.

Agenda konfiguratzea

Joan  ikonora ◀▶ tekla erabilia, aukera hauetan sartzeko:

- | | | | |
|---------------|--|------------------|--|
| Alarma | <ul style="list-style-type: none">• Programatu alarmaren eta hitzorduaren arteko lehenespenezko tartea. | Por hacer | <ul style="list-style-type: none">• Sailkatu zereginak lehenetasunaren edo epemugaren arabera. |
| Agenda | <ul style="list-style-type: none">• Programatu egunaren hasierako ordua, astearen lehen eguna, urteko lehen astea. | Borrar | <ul style="list-style-type: none">• Ezabatu agendako zeregin edo elementu guztiak edo epemuga pasatako elementu guztiak. |



Konfidentzialtasuna:

Zure agendako datuak babes ditzakezu (ikus “**Confidencialidad**” aukera 57. orrialdean).

Parametro bat aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu **OK** tekla. Atera konfigurazioaren funtzioetik **C** tekla sakatuta.

Funtzio aurreratuak

Irudikapen grafikoak



Egunen araberako egutegia Asteen araberako egutegia Hilaren araberako egutegia

- Hitzordu bakarria programatuta.
- Ordu-tegi horretan, gutxienez bi hitzordu programatuta.
- 49 Urteko zenbatgarren astea.
- ▲ Ordu-tarte hori baino lehenago hitzordu bat dago programatuta.
- ▼ Ordu-tarte hori baino geroago hitzordu bat dago programatuta.

Hilaren araberako egutegia

Atzealde urdina Programatutako hitzordua

Atzealde zuria Hitzordurik ez dago programatuta

Egutegi hauetan, uneko egunak, asteak edo hilak keinuka bistaratzen dira.

10.2 Alarmak

Sartu funtziora menu nagusian **“Herramientas”** eta, gero, **“Alarmas”** hautatuta.


Iratzargailua

Programatu iratzargailuaren maiztasuna (egunero edo bakarra) eta, ondoren, sartu ordua eta data, eta berretsi **ok** tekla sakatuta. Iratzargailua zertarako programatu duzun ere sar dezakezu, eta **ok** teklarekin berretsi.

Minutu-kontagailua

Programatu alarma aktibatu aurreko denbora-tartea eta berretsi **ok** teklarekin.

Aukerak

Alarma aktibatuta dagoenean,  ikonoa bistaratzen da hasierako pantailan. Telefonoa piztuta edo itzalita egon, alarma aktibatu egingo da, eta **C** tekla sakatuta desaktibatuko da.

“Con repetición” aukera hautatu baduzu, alarma hamar minutuko tarte erregularretan pizten da.

10.3 Bihurgailua

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Conversor**” hautatuta.

Moneta-bihurgailuari esker, hau egin dezakezu:

- Moneta bat euro bihurtu zuzenean, eta alderantziz ⁽¹⁾.
- Diru-kopuru bat beste moneta bat bihurtu (adibidez, dolarrak liberatan).

Eurotara bihurtuz gero, lehenetsitako moneta alda dezakezu “**Ajustar**” aukera hautatuta.

Nazioarteko monetak bihurtzean, bi monetak hautatu behar dituzu. Bi moneten arteko truke-tasa ere sartu behar duzu.


Moneta bakoitzeko, truke-tasaren balioa lehenetsi da. Balio hori alda dezakezu “**Ajustar**” aukera sakatuta.




Hasierako pantailatik, sartu programatutako monetan jarri nahi duzun kantitatea eurotan, sakatu **OK** tekla eta aukeratu “**Conversor**”.

10.4 Kalkulagailua

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Calculadora**” hautatuta.



Idatzi zenbakia eta berretsi **OK** tekla sakatuta. Ondoren, aukeratu egin nahi duzun eragiketa-mota  tekla erabiliz eta berretsi berriro.

Idatzi bigarren zenbakia eta sakatu **OK** tekla.

Aukeratu “**=**” zeinua, emaitza ikusteko.

Hasierako pantailara itzultzeko, sakatu **C** tekla (luze sakatu).

⁽¹⁾ Europako moneta nazionalen kasuan, moneta-bihurgailuak 1998/12/31n erabakitako EUROaren behin betiko bihurtze-tasak hartzen ditu kontuan, eta bihurtze-arau ofizialen arabera erabiltzen ditu.

10.5 Memoria

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Memoria**” hautatuta.

Bistaratu memorian erabilgarri duzun espazioa.

Zure telefonoan erabilgarri duzun memoria funtzio hauek erabiltzen dute: direktorioa, agenda, mezuak, grabazioak, ahozko markaketa, irudiak eta melodiak, jokoak eta aplikazioak, bideklipak. Adibidez, grabazioetarako memoria asko erabili nahi baduzu, espazio gutxiago izango duzu direktoriorako.



Memorian lekua izateko, elementu handienak ezabatu beharko dituzu: grabazioak, MMSak, irudiak, argazkiak, grabatutako soinuak, aplikazioak, bideoklipak eta abar. Telefonoa erosi zenuenetik telefonoan dituzun elementu batzuk ere ezaba ditzakezu.

10.6 Grabazioa

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Grabación**” hautatuta.

Ahotsa gogorarazteko funtzioa diktafono gisa erabil daiteke mezu pertsonalak grabatzeko. Mezu bat grabatzeko, aukeratu “**Grabación**”, segidan “**Guardar**” eta, azkenik, hitz egin bip-aren ondoren. Grabazio bat sortu ondoren, aukera hauetara sar zaitezke:

Escuchar	• Entzun grabatutako mezua.	Título	• Aldatu doinuaren izenburua.
Enviar	• Bidali grabazio MMS edo infragorri bidez.	Grab.->Melodía	• Kopiatu grabazioa soinuen bilduman (MMS bidez bidaltzeko edo txirrin gisa erabiltzeko).
Manos libres discreto	• Pasatu esku libreko modutik modu neurritsura.	Borrar	• Ezabatu hautatutako grabazioa.

10.7 Infragorriak (IRDA)



Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Infrarrojos**” hautatuta.


Funtzio honek aukera ematen dizu zure direktorioari edo agendari buruzko datuak edo irudiak, bideoak eta doinuak beste telefono batekin edo PC batekin infragorri bidez trukatzeko. Infragorrien ataka telefonoaren goiko aldean dago.

Datuak bidaltzea

Datuak bidaltzeko, aukeratu direktorioko erregistroa, eta, ondoren, hautatu “**Enviar**” aukera. Ez da beharrezkoa infragorrien funtzioa aktibatzea bidalketa egin aurretik.


Datuak jasotzea

Datuak jasotzeko, ezinbestekoa da infragorrien funtzioa aktibatzea. Mezu batek adierazten dizu datuak iritsi direla; gorde datu horiek ( teklarekin) edo ez onartu ( teklarekin).

Aukera egindakoan,  ikonoa bistaratzen da pantailan. Infragorrien funtzioa automatikoki desaktibatzen da denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren ⁽¹⁾. Konexioa dei bat jasotzean eteten da. Une berean, hiru bisita-txartel (VCard) edo hitzordu (VCal) jaso ditzakezu gehienez.

10.8 Alarmen zerrenda

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Lista de Alarmas**” hautatuta.

Programatutako alarma guztiak bistara ditzakezu.  ikonoa bistaratuko da hasierako pantailan, iratzargailua edo minutu-kontagailua edo alarma programatu baduzu egun bererako edo hurrengo egunerako.

(1) Infragorrien funtzioa maiz erabiltzen baduzu, teklatutik zuzeneko sarbidea programa dezazun aholkatzen dizugu (ikus 55. orrialdea).

10.9 Konpositorea

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Compositor**” hautatuta.

10.9.1 Konposatzea

Aukeratu “**Componer**” eta erabili teklatua behean adierazten den bezala:

ok Aukeretara sartzeko

C Nota bat kentzeko
Letik 7rako teklatuak: zortzidun bateko oinarrizko notak (do, re, mi, fa, sol, la, si)

S^{tu}v Nota baten iraupena aldatzeko

q^{*} Zortziduna aldatzeko

O[†] Isilunea gehitzeko

#_q Sostenitua gehitzeko

10.9.2 Grabatzea

Hautatu “**Grabar**” zeure soinua grabatzeko.

Bi kasuetan, soinu horiek doinu gisa erabil ditzakezu. Soinu bat (konposatua edo grabatua) entzun nahi baduzu, hautatu eta sakatu “**Opciones**” aukeraren gainean.

10.10 Ahots-komandoa

Sartu funtziora menu nagusian “**Herramientas**” eta, gero, “**Compositor vocal**” hautatuta.

Ahots-komandoek menuko funtzio batzuetara funtzioaren izena esanda sartzeko aukera ematen dute.

Ahots-komandoak grabatzea

Menuko funtzio batentzako ahots-komando bat grabatzeko, aukeratu “**Comando vocal**” eta nahi duzun funtzioa eta segitu jarraibideei.

🔊 ikonoak adierazten du zein funtziok duten grabatuta ahots-komandoa. 10 funtziotara sar daiteke ahots-komandoa erabilia.


Ahots-komandoak erabiltzea

Ahots-komandoak aktibatzeke, luze sakatu  tekla hasierako pantailan. Ahots-komando bat erabiltzeko, segitu pantailan bistaratuko diren jarraibideei.

Grabatu ondoren, hiru gauza egin ditzakezu ahots-komandoekin: “**Escuchar**”, “**Reemplazar**” edo “**Borrar**”.

|| Aholkuak & Trikimailuak.....

Menu honetan, telefonoaren funtzio nagusien deskribapena agertzen da eta haien erabilera optimizatzeko trikimailuak proposatzen dira.

Hasierako pantailatik, sakatu **OK** tekla menura sartzeko, eta hautatu **“Consejos & Trucos”** menua  ikonoa duena.

Funtzio nagusi bakoitzaren barruan ere sar zaitezke funtzio horretara (hautatu **“Opciones”**).

Aztertu testua. Deskribapenaz gain, animazio txiki bat dago; funtzioa nola erabili erakusten du.

Azalpen horiek kontsultatu eta gero, **Consejos & Trucos** menuko orri nagusira itzul zaitezke, edo **“Opciones”** hautatu WAP aukeretara sartzeko (ikus 74. orria).

12 WAP



12.1 WAP menura sartzea ⁽¹⁾

WAP (Wireless Application Protocol) Internet mugikorreko funtzioetara sartzeko aukera ematen duen zerbitzua da. WAP zerbitzuari esker, eguraldiari, burtsari edota trafikoari buruzko informazioa jaso dezakezu, besteak beste.

- “**Página de inicio**”: WAP nabigatzailea martxan jartzen du lehenespenez definitutako hasierako orrian.
- “**Favoritos**”: gogoko tokien zerrendara sartzeko edo zerrendan bat gehitzeko aukera ematen du.
- “**Perfil WAP**”: WAP profilen zerrenda bat bistaritzen du.
- “**Introducir dirección**”: sartutako helbidea duen WAP orrira zuzenean sartzeko aukera ematen du.

12.2 Sarbidea programatzea ⁽²⁾

“**Perfil WAP**” zerrendatik, aukeratu profil bat eta sakatu “**Opciones**” funtzio-tekla.

Lanzar	<ul style="list-style-type: none">• Jarri WAPa martxan, lehenespenez beste bat badago ere hautatuta.	Crear	<ul style="list-style-type: none">• Sartu profil berri baten parametroak.
Activar	<ul style="list-style-type: none">• Hautatu uneko profila lehenespenezko profil gisa (aukera hori ez da azaltzen dagoeneko hautatuta badago).	Modificar	<ul style="list-style-type: none">• Aldatu profilaren parametroak.
		Borrar	<ul style="list-style-type: none">• Ezabatu hautatutako profila.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Sartu operadoreak emandako datuak.

Profil bat “**Crear**” edo “**Modificar**” egiteko, parametro hauek sartu behar dituzu ⁽¹⁾:

- Nombre perfil
- Página de inicio
- Dirección IP
- Seguridad
- Selecc. Portadora
- Confirmar

“**Selecc. Portadora**” aukeran transmititzeko modua hauta dezakezu: **GPRS/GSM, GPRS** edo **GSM**.



GPRS/GSM transmisio-modua aukeratzen baduzu, GSM modua aktibatu egiten da GPRS modua erabilgarri ez dagoenean.

